# EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA ERRENTERIAKO HERRIAN

- Plazari “Xabier Munibe, Peñafloridako kondea”, izena jartzea.
- Denominación de la plaza “Xabier Munibe, Peñafloridako kondea”.

- Andra Mari Abesbatza Adiskide Kolektiboa izendatzea.
- Nombramiento de Andra Mari Abesbatza como Amigo Colectivo.

**EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA**
**REAL SOCIEDAD BASCONGADA DE LOS AMIGOS DEL PAÍS**

## Tokia – Lugar

Merkatu Zaharraren atarian – Entrada del Mercado Viejo
ERRENTERIA

**2015eko ekainaren 27an, larunbata 19:00etan**
**Sábado, 27 de Junio de 2015 – 19:00h**

**ANDRA MARI ABESBATZA**, 1966an Jose Luis Ansorenaren eskutik sortutako Errenteriako abesbatzak Euskal Herrian eta Estatuan abesbatza eta koru musikaren alorrean egun duen eskarmentua eta erreferentzialtasuna irabazteko lan eta ibilbide luze eta oparoa egin du.

Andoni Sierrak zuzentzen du, Jose Manuel Tiferen zuzendaritzaldia bukatuz gero. Andra Mari Abesbatzak errepertorio zabal bezain zaindua du, koru musika oro jorratzen du, operak eta zarzuelak barne, euskal musikan du bere berezitasuna eta horretan espezialista da.
Sari ugari irabazi ditu jaialdi eta lehiaketetan, Madril, Bartzelona, Sevilla, Coruña eta Tenerifen abestu izan du eta Perelada, Santander, Granada eta Donostiako musika jaialdietan parte hartu izan du, besteak beste.
Orkestra sinfoniko ugariekin lan egin eta egiten du, hala nola: Euskadi, Bilbao, Tenerife, Galizia, Madril, Espainiako Nazionala, Régional Bayonne Côte-Basque, Scottisch Chamber Orchestra, Filarmónica de Buenos Aires, Cadaqués-eko Orquesta, Thüringen Philharoniae, Orquesta Siglo XVIII.
Andra Mari Abesbatzak zuzendari ugari eta bikainen eskutik abestu izan du, F. Brüggen, J. López Cobos, J. J. Mena, A. Ros Marbá, A. Boreyko, A. Orozco-Estrada, V. Pablo Pérez, S. Ranzani, C. Mandeal, G. Neuhold, E. García Asensio, Robert King, Philip Pickett edo Pascal Rophé, izen batzuk aipatze arren.
Euskal Herriko abesbatza musikaren zirkuituan ohikoa da eta horrekin batera espainiar Estatuko jaialdi eta eszenatokietan abestu izan du eta Europan eta Argentinan emanaldi birak egin izan ditu.
18 disko grabatu ditu gaur egun arte.
Andra Maria Abesbatzak ERESBIL, Musikaren Euskal Artxiboa sortu zuen eta egun Euskal Herriko musika artxibo nagusiaren patronatuaren parte da. Artxiboa sortzeko ekimena Jose Luis Ansorenaren eskutik etorri zen Andra Mari Abesbatzaren baitan, MUSIKASTEk, eragindako programazio beharrak zirela eta. ERESBIL Musikaren Euskal Artxiboaren helburu nagusia musika ondarea eta, bereziki, euskal musikagileen ekoizpena, bildu, gorde, babestu eta zabaltzea da, egun 30.000 partitura eta 2000 konpositoreen lanak bilduak ditu bere funtsetan.
Arestian aipatu moduan, Andra Mari Abesbatzak sortu zuen MUSIKASTE, Errenteriako euskal musikaren astea, ERESBILek eta Andra Mari Abesbatzak elkarlanean urtero antolatzen dutena.

Fundada en 1966 por José Luis Ansorena, Andra Mari Abesbatza de Errenteria es una agrupación de música coral que se ha constituido en un referente en el panorama sinfónico coral de Euskadi y del Estado español.

Dirigida por Andoni Sierra, que asumió la dirección de manos de José Manuel Tife, Andra Mari Abesbatza cuenta con un extenso y cuidado repertorio; cultiva todo tipo de género de música coral, incluidas óperas y zarzuelas, estando especializada en la música vasca.
Ha conseguido numerosos premios en diferentes concursos y actuado en Madrid, Barcelona, Sevilla, A Coruña, Tenerife y en los festivales de Perelada, Santander, Granada y San Sebastián, entre otros.
Ha colaborado o mantiene líneas de trabajo con las orquestas sinfónicas de Euskadi, Bilbao, Tenerife, Galicia, Madrid, Nacional de España, Regional Bayonne Côte-Basque, Scottisch Chamber Orchestra, Filarmónica de Buenos Aires, Orquesta de Cadaqués, Thüringen Philharmoniae, Orquesta del Siglo XVIII, entre otras.
Andra Mari Abesbatza ha actuado con directores como F. Brüggen, J. López Cobos, J. J. Mena, A. Ros Marbá, A. Boreyko, A. Orozco-Estrada, V. Pablo Pérez, S. Ranzani, C. Mandeal, G. Neuhold, E. García Asensio, Robert King, Philip Pickett o Pascal Rophé. Siendo una agrupación coral habitual en el circuito vasco, además de sus actuaciones en diferentes escenarios del Estado español, ha realizado giras por varios países europeos y Argentina.
Hasta el momento tiene registradas 18 grabaciones discográficas.
Andra Mari Abesbatza está en la génesis de ERESBIL, Archivo Vasco de la Música y forma parte de su patronato. ERESBIL nace de la mano de José Luis Ansorena en el seno de la Coral Andra Mari, para responder a las necesidades de repertorio para programar MUSIKASTE. ERESBIL archivo institucional público tiene como fin principal la recopilación, conservación, protección y difusión del Patrimonio musical vasco y, en especial, la producción de los Compositores Vascos. Al día de hoy sus fondos cuentan con cerca de 30.000 partituras de en torno a 2000 compositores.
Andra Mari Abesbatza creó el festival MUSIKASTE, Semana de la Música Vasca de Errenteria que conjuntamente con ERESBIL organiza anualmente.

# HITZARTE ORDENA - ORDEN DE INTERVENCIONES

**JULEN MENDOZA**, Errenteriako alkatea
Plazari izena jartzea

**JUAN BAUTISTA MENDIZABAL**
Bascongadako Gipuzkoako Presidentea

Andra Mari Abesbatza Adiskide Kolektibo izendatzea

**ANDRA MARI ABESBATZAren Saioa**

**XABIER OLASKOAGA** presidentearen hitzak

**ABESTIAK**

**Ariyo Probintziya**. Xabier Munibe
**Donostiako hiru damatxo**
**Aitak eta amak + Goizean goizik**
(Herrikoak. Aita Donostiaren harmonizazioa)
**Mendigoizaleak**
(?) (A. Hilario Olazaranek Andra Mariri eskainia)

**Partaideak:**

**Andra Mari Abesbatza**
**Orereta Abesbatza**

**Txistulariak**
**Pianoa**



ANDRA MARI ABESBATZA - ERRENTERIA




XABIER MARIA DE MUNIBE
PEÑAFLORIDAKO KONDEA